

## HEZKUNTZA PLASTIKOA, IKUSIZKOA ETA IKUS-ENTZUNEZKOA

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa pentsamendua eraldatzen duen diziplina da, gizakiari, hasiera-hasieratik, ikusezina ikusgai bihurtzeko aukera ematen diona. Forma, egintza eta produkzio artistikoetan hezurmamitzen den pentsamendua; gainera, gizabanakoaren beharrei erantzunez proposamen sortzaileak eta originalak sortzeko gaitasuna ere badu. Amets posiblea da, eta, berrari esker, argitaragabea den oro bideragarritzat jo behar da, historia continuum bat balitz bezala ulertzeko. Pertsonaren garapen globala du helburu: epaitzeko, ulertzeko, analizatzeko, interpretatzeko eta gozatzeko ahalmena sustatzeko ezagutza historiko eta kulturala. Jakintzagai hau ez da soilik ikaskuntza kognitibo eta teknikoek dagokienez irakasten; sorkuntza artistikoak eta pentsamendu sortzaileak ez dute baztertzen irrazionala, ausazkoa edo ustekabekoa, emozio pertsonala, eta enpatiaren bidezko komunikazioa eskatzen dute.

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa jakintzagaiak curriculumeko funtsezko konpetentziak garatzen eta oinarritzko hezkuntzan ikasleen irteera-profila lortzen laguntzen du. Jakintzagai hau konzientzia eta adierazpide kulturaletarako konpetentziari zuzenean loturik dago, sormenarekin zuzenean erlazionatuta. Arte plastikoek, ikusizkoek eta ikus-entzunezkoek pertsonaren garapen holistiko eta harmonikoari laguntzen diote, gure hurkoekin hizkuntza unibertsal baten bitartez, hots, artearen bitartez harremanak izateko premiari erantzuten dioten aldi berean. Halaber, adierazpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoetako edozeinen irudiak deskodetzen laguntzen dute, baita iritzi kritikoa trebatzen ere. Prestakuntza honek are garrantzi handiagoa du gaur egungo irudiaren nonahikotasuna dela-eta.

Ikus-entzunekoa eta teknologikoa gure egunerokotasunean uztartzen dira. Teknologiak harrera eta praktika artistikoa demokratizatzen lagundu du, eskaintzen duen aukera-aniztasunarekin aberastu duen

aldi berean. Baina manipulatzeko aukerak ere areagotu egin ditu. Horregatik, ezinbestekoa da ikasleak azterketa kritikoan prestatzea, betiere ezagutzatik abiatuta, eta konpetentzia digitala garatzen laguntzea.

Hezkuntza plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak ezagutzen transferentzia mekanikoa gainditzea sustatzen du, estereotipo kulturalak, sexistak, aurreiritziak eta gizarte-oztopoak gainditzea. Gainera, jarrera kritikoaren inguruko prestakuntzarantz bideratzen da eta eraldatzeko aukerak irekitzen ditu, bai indibidualak bai kolektiboak, herritartasunerako konpetentziarekin eta ikasten ikastekoarekin bat.

Sorkuntza artistikoan, proiektu baten ekintzailtzan, faktore ugari eta askotarikoak sartzen dira jokoan, hala nola adimena, ezagutzen mobilizazioa, sentimenduak, bizipen pertsonalak, hainbat sortzailek historian zehar egin dituzten ekarpenak, arreta, hizkuntza, arazo ugarirentzako soluzio sortzailea, plangintza, mota guztietako tresna eta euskarrien erabilera, gogoeta eta autorregulazioa, eta, orobat, etengabeko ebaluazioa. Ikasleek, era berean, zenbait erronka izango dituzte aurrez aurre: proiektu iraunkorren zuzendaritza, hondakinen kudeaketa arduratsua, eta material artistikoen segurtasuna, toxikotasuna eta ingurumen-inpaktua. Horri esker, ikasleen prestakuntza globala eta ingurumen-hezkuntza ahalbidetuko da. XXI. mendeko erronka eta desafio globalak guztiak ere.

Jakintzagaia lau konpetentzia espezifikotan egituratuta dago, Lehen Hezkuntzako etaparen egiturari jarraipena eman eta Oinarrizko Hezkuntzan koherentzia lortzeko. Konpetentzia espezifikoak dira, definizioaren arabera, arlo honen laguntza zuzenago hartzen duten konpetentzia-ikaskuntzak. Lehenengoa ondarearen kontserbazioa sustatzeko adierazpen artistikoen ezagutzari buruzkoa da. Bigarrenak hainbat produkzioen ikerketa, analisia eta azalpena hartzen ditu ardatz, eta, bereziki, berdin berzkoenak, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinarioa bera elikatzeke. Hirugarrena hizkuntza plastikoekin, ikusizkoekin eta ikus-entzunezkoekin esperimentatzeari buruzkoa da, baita sorkuntza-prozesuaren parte den sorkuntza indibidualari buruzkoa ere. Eta laugarrenak taldeko produkzioaren garrantzia eta proiektu baten planifikazio, diseinu eta ebaluazio faseak biltzen ditu.

Konpetentzia espezifikorien eskuratze-maila planteatutako ebaluazio-irizpideen bitartez zehazten da, horiek ezartzen baitute konpetentziaren eskakizun-maila.

Jakintzagai honetako oinarrizko jakintzak hiru multzotan egituratzen dira: *Pertzepzio eta hautemate estetikoa*, *Sorkuntza eta interpretazioa*, eta *Jakintza orokorra*.

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa jakintzagaian planteatuko diren ikaste-egoerek etengabeko ekintza, gogoeta, jarrera irekia eta kolaboratiboa eskatuko dute, ikasleek kultura eta praktika artistiko pertsonal eta iraunkorra eraiki dezaten. Horrela, *ezagutzak*, *trebetasunak* eta *jarrerak* konbinatuz eskuratuko dira konpetentzia espezifikoak. Helburua da ikasleen hurbileko testuinguruei lotutako egoerak sortzea, ikaskuntza esanguratsua bultzatu eta haien jakin-mina piztuko dutenak, identitate pertsonala eta autoestimua gara dezaten.

Jakintzagai honen helburu orokorra, eta irakaskuntza artistikoarena oro har, ahalmen metakognitiboa garatzea da, nork bere mugak etengabe gainditzearen bidez, inprobisazioa eta sormena erabiliz egoera berriak eta ezezagunak ebazteko. Ikaskuntza hori ezinbestekoa da ikasleak bizitza osoan aurre egingo dien desfioei erantzuteko, eta ziurgabetasuna erantzun sortzaileak egituratzeko aukera gisa onartzeko. Baita berekin ekar dezakeen antsietatea egoki kudeatzeko ere.

## KONPETENTZIA ESPEZIFIKOAK

1. Zenbait adierazpen plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko hartze aktiboaren bidez eta hainbat tresnaren erabilerean bitartez ezagutzea eta baloratzea, genero-isuririk gabe, jakin-mina, sentsibilitatea eta errespetua erakutsiz, pentsamendu kritikoa garatzeko eta ondarea kontserbatu beharra ulertzeko.

Zenbait kulturatetik datozen askotariko proposamen artistikoak ezagutu, eskuratu, aztertu, deskribatu, hartu eta ulertzea funtsezko prozesuak dira adierazpen horien aurrean interesa eta balorazioa erakusten duten gizaki kritikoak, enpatikoak, jakin-mina dutenak, begirunetsuak eta sentikorrak eratzeko.

Iraganeko produkzioen aurkikuntzak funtsezko gakoak ematen ditu orainaren interpretaziorako eta etengabeko ikaskuntzarako. Era berean, ondarearen kontserbaziorako erabaki garrantzitsuak hartzea errazten du. Aztertutako adibideen artean genero-ikuspegia txertatuko da, emakumeek egindako produkzio artistikoen azterketaren bitartez.

Funtsezkoa da produkzio artistiko oro testuinguruan kokatzea, behar bezala baloratu ahal izateko, artearen historiaren bilakaerari buruzko ikuspegia izateko, eta, horrekin batera, produkzio horiek sorrarazten dituzten gizartearen bilakaeraren berri izateko.

Konpetentzia honekin lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, KE1, KD1, KPSII1, KPSII3, HK1, HK3, KAKK1.

2. Norberaren eta bere gisakoen produkzioak ikertzea, analizatzea eta azaltzea, ondareko produkzio artistikoak eta ondarea osatzen dutenak erreferentzia gisa erabiliz, interesa erakutsiz eta hizkuntza artistikoen ezaugarriak kontuan hartuz, kultura-aniztasunarekiko errespetua garatzeko, kultura artistiko zabala eraikitzeke eta imajinarioa bera elikatzeke.

Produkzio plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak inoiz baino zabalagoak dira; hirugarrenak nonahi ageri dira gure gizartean. Horiek ikertzea, aztertea, azaltzea, aniztasun eta konplexutasun osoan hautemateko, aberasgarria da ikasleentzat; izan ere, artelan plastikoaren, ikusizkoaren eta ikus-entzunezkoaren behaketak berez dakarren plazeraz gain, horietatik sortzen da gizaki ororen identitatearen zati baten eraikuntza, eta hori funtsezkoa da imajinario aberatsa egiteko eta munduaren gaineko begirada enpatikoaren eta aurreiritzirik gabearen oinarriak ezartzeko.

Aldi berean, norberaren eta besteen produkzioak analizatzea, bere gisakoekin esperientziak trukitzea eta horien bateratze-lana egitea baliagarria izango da ikasleek beren aukerak zabal ditzaten. Ikasleek zenbat eta gehiago ezagutu hizkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa, orduan eta errazagoa izango da gaur egungo gizartean kultura-elementu gisa duten garrantzia ulertzea. Horren ondorio logikoa izango da sorkuntza artistikoari, oro har, eta haren ikusizko eta ikus-entzunezko adierazpenei, bereziki, begirunez eta tolerantziaz begiratzea.

Konpetentzia honekin lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: HKK1, KE3, KD1, KPSII3, HK1, HK3, KAKK1, KAKK2.

3. Hizkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoekin esperimentatzea eta proposamen pertsonalak sortzea, ikerketaren eta praktikaren bitartez, ideiak, sentimenduak eta emozioak modu sortzailean adierazteko eta komunikatzeko, eta hobetzeko gaitasuna, autoestimua eta autokritika jarrera irekiarekin garatzeko.

Produkzio artistikoen sorkuntzan erabiltzen diren teknikak eta hizkuntzak ia amaigabeak dira, eta emaitzak gizakiaren sormena bera bezain askotarikoak, ezin baita aurrez zehaztutako formatuetan hertsatu. Horretarako, garrantzitsua da hizkuntza plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoekin eta sorkuntzarako bitarteko eta tresnekin esperimentatzea.

Ikasleek beren burua modu autonomoan, berezian eta esanguratsuan adieraztea lortzeko, ikuspegi pertsonala emanaz, forma berriak aztertu, ezagutu eta aurkitu behar dituzte, lortutako emaitzekin esperimentatuz.

Produkzio artistiko bat behar bezala burutzeak porrotaren ideia ikasteko modu gisa onartzea eskatzen du, hobetzeko gaitasuna, autoestimua eta autokritika jarrera irekiarekin sustatuz.

Konpetentzia honekin lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: KE2, STEM1, KD2, KPSII1, KPSII4, KPSII5, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

4. Kolaborazioko produkzio kultural eta artistikoen diseinuan, elaborazioan, argudiatzean eta zabal-kundearen parte hartzea, prozesuari balioa emanaz eta azken emaitza lortzeko zenbait rol bere gain hartuz, sormena, autorearen nozioa eta pertenezaren zentzua garatzeko.

Produkzio kultural eta artistikoen sorkuntzan, diseinuan, elaborazioan eta zabal-kundearen kolaboratuz parte hartzea funtsezkoa da gizabanakoaren garapen osorako. Era berean, hezkidetzaren ikuspegitik, ezinbestekoa da talde-produkzioetan esku hartzea; izan ere, kolaborazio-lanak berarekin dakar ezagutu, errespetatu eta baloratu beharreko askotariko rolak onartzea eta ulertzea. Zalantzarik gabe, talde-lanak nortasuna aberasten eta eraikitzen laguntzen du, bai sormenezko arte-adierazpenaren bidez, bai teknika plastikoak, ikusizkoak eta ikus-entzunezkoak erabilia egindako errepresentazioen eta adierazpenen bidez.

Kompetentzia honekin lotutako irteera-profilaren deskriptoreak: KE2, STEM3, KD2, KPSII3, KPSII4, EK3, KAKK3 eta KAKK4.

## EBALUAZIO-IRIZPIDEAK

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa
<b>1. kompetentzia espezifikoak</b>
1.1. Hainbat iturritatik produkzio plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko artistikoei buruz bildutako informazioa hautatzea, bereizgarri dituzten elementu nagusiak analizatuz eta pentsamendu kritikoa garatuz, jakin-mina, sentsibilitatea eta errespetua erakutsiz.
1.2. Zenbait produkzio plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoren inguruko testuingurua ezagutzea, baita horren funtzioa eta xedea ere, ahoz eta/edo idatziz deskribatuz, hiztegi espezifikoak erabiliz, interesa eta errespetua erakutsiz.
1.3. Ondare kultural eta artistiko propioaren kontserbazioaren garrantzia baloratzea, praktika plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezkoarekin erlazioatutako lanbideak identifikatuz, aberaste pertsonalerako modu gisa.
<b>2. kompetentzia espezifikoak</b>
2.1. Hizkuntza artistiko bakoitzaren ezaugarri partikularrak identifikatzea, mota guztietako egile-eskubideekiko interesa eta errespetua erakutsiz.
2.2. Hainbat produkzio artistiko, norberarenak eta bere gisakoenak barne, modu gidatuan analizatzea, munduranzko begirada estetiko irekia garatuz eta aniztasuna errespetatuz.
2.3. Errealitatearen, imajinarioaren eta produkzioaren artean dagoen prozesuaren garrantzia baloratzea, adierazpen-askatasunarekiko errespetuzko portaera erakutsiz, ikuspuntu inklusibotik.
<b>3. kompetentzia espezifikoak</b>
3.1. Bere ideiak eta sentimenduak esperimentazioaren bidez azaleratzea, norberaren adierazpen-xedeetarako material, tresna, euskarri eta teknika egokiak erabiliz, bere pentsamendu sortzailea eta pertsonala aberastuz.
3.2. Norberaren bizipenak eta munduaren ikuskera sormenez irudikatzea, norberaren imajinarioa eta sentsibilitatera joaz, bere mugak gainditzen ahaleginduz, norberaren eta bere gisakoen ezagutza areagotuz, baita bere autoestimua ere.
3.3. Proiektu artistiko indibidual bat sormenez egitea, norberaren mezuak sortzeko modu kontzientean eta materialak, euskarriak eta tresnak maneiatzeko ekimena erakutsiz, iraunkortasun-irizpideekin.
<b>4. kompetentzia espezifikoak</b>
4.1. Komunikazio-asmoa duten produkzioak modu kolaboratiboan eta sormenez garatzea, prozesu sortzailea planifikatuz eta zenbait rol bere gain hartuz prozesuaren etapetan zehar.
4.2. Proiektu artistikoen elaborazio-prozesua eta azken emaitza erakustea, besteen iritzia baloratuz.

2023ko uztailaren 31, astelehena

## OINARRIZKO JAKINTZAK

Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa	
<b>A. Pertzepzioa, hautemate estetikoak eta analisisa</b>	
<b>1. Ondare artistikoa eta kulturala.</b>	Artearen historian zeharreko genero artistikoak, genero-ikuspegitik.
	Tokiko ondarekoak eta ondare globalekoak diren adierazpen kulturalak eta artistikoak: alderdi formalen eta testuinguru historikoaren analisisa, genero-ikuspegia txertatuta.*
	Ikusizko hizkuntza eta komunikazioa. Helburuak: informazioa, komunikazioa, adierazpena eta estetika. Testuinguruak eta funtzioak.
	Ondare artistikoa kontserbatzeko, babesteko eta ezagutarazteko beharra.
	Ondare arkitektonikoa: forma geometrikoak artean eta ingurunean.
	Ikusizko hizkuntza eta komunikazioa. Helburuak: informazioa, komunikazioa, adierazpena eta estetika. Testuinguruak eta funtzioak.
	Ikusizko eta ikus-entzunezko irudiak: irakurketa eta analisisa.
<b>2. Irudiaren eta ikusizko eta ikus-entzunezko hizkuntzaren elementu formalak.</b>	Ikusizko hizkuntza komunikazio-modu gisa.
	Ikusizko hizkuntzaren oinarrizko elementuak: puntua, lerroa eta planoak. Adierazpen- eta komunikazio-aukerak.*
	Ikusizko elementuak, kontzeptuak eta adierazpen-aukerak: forma, kolorea eta ehundura.*
	Marrazketa teknikoa hizkuntza gisa.*
	Konposizioa. Oreka, proportzioaren eta erritmoaren kontzeptuak, formak planoan eta espazioan antolatzeari aplikatuak.
Irudi finkoa eta mugikorra: jatorria eta bilakaera. Komikiaren, argazkigintzaren, zinemaren, animazioaren eta formatu digital berrien ezaugarriak.	
<b>B. Sorkuntza eta interpretazioa.</b>	
<b>1. Adierazpen artistikoa eta grafiko-plastikoa. Ikusizko eta ikus-entzunezko irudia eta komunikazioa. Teknikak eta prozedurak</b>	Eragiketa plastikoen bidezko prozesu sortzailea: erreproduzitu, isolatu, eraldatu eta elkartu.
	Bi dimentsioko adierazpen grafiko-plastikoaren oinarrizko teknikak. Teknika lehorrak eta hezeak. Arteko erabilera eta adierazpen-ezaugarriak.**
	Hiru dimentsioko adierazpen grafiko-plastikoaren oinarrizko teknikak. Arteko erabilera eta adierazpen-ezaugarriak.*
	Ikus-entzunezko produkzio errazak bakarka edo taldean egiteko teknikak. Ikaskuntza-ingurune birtualetan esperimintatzeko estrategiak.
	Prozesu sortzailearen faktoreak eta etapak: materialak eta teknikak hautatzeko eta bozetoak egiteko estrategiak.
Geometria lauaren eta oinarrizko trazatu geometrikoen hastapenak.	
<b>C. Orokorrak.</b>	
Esparru plastiko, ikusizko eta ikus-entzunezko lotutako lanbideak.	
Genero-ikuspegia eta estereotipo-haustura. Lanbide-bokazioaren ezagutza, balorazioa eta sustapena.	
Portaera-arauak eta jarrera positiboa proposamen grafiko-plastikoak, diseinukoak eta publizitatekoak eta argazkigintzakoak hartzean eta sortzean. Ikus-entzunezko hizkuntza eta multimedia, zenbait espazio kultural eta artistikotan, netiketa-arauak kontuan hartuz. *	

<b>Hezkuntza plastikoa, ikusizkoa eta ikus-entzunezkoa</b>
Esparru grafiko-plastikoari, diseinuari eta publizitateari, argazkigintzari eta ikus-entzunezko hizkuntzari eta multimediar lotutako hizkuntza eta hiztegi espezifikoak. Ezagutza eta erabilera.
Akatsa hobetzeko eta ikasteko aukera bezala ikustea.
Ahalegina helburuak lortzeko metodoa eta bidea.
Aniztasuna baloratzea eta errespetatzea.
Pentsamendu kritikoa eta dibergentea garatzea.
Ezagutu, errespetatu eta baloratu behar diren askotariko rolak daudela onartzea eta ulertzea.
Enpatia eta ikuspuntu desberdinen balorazioa.
Autonomia, norberarengan konfiantza izatea eta autokritika sendotzea.
Interesa, jakin-mina, ekimena, jarrera irekia eta sensibilitatea.
Sormenaren garapena.